



Frantziako Flandes

Txikia bezain ezezaguna

Parisek ukatu nahi badu ere, Frantzia estatu kultur anitza da oraindik. Britainiarrek, korsikarrek, katalanek, euskaldunok... mosaiko koloretsua osatzen dugu. Baita flandestarrek ere.

Testua eta argazkiak:

KARLOS ZURUTUZA

PARISTIK LONDRESERA doan Eurostar tren inoiz hartu baduzue, Frantziako Flandes zeharkatu duzue. Agian arreta eman dizue bertako paisaia lauak, haize errotek edota adreilu koloreko herri txikiek. Tamalez, 200

kilometro orduko abiaduran ezin detaile txikiei erreparatu.

Munstro metalikoak ordu erdi eskasean zeharkatzen du Flandesko zati hau, frantsesek Nord deituriko departamendua.



Lilleko plaza nagusia.

Belgikako Flandesen mugaren beste aldeko lurraldea da Frans-Vlaanderen (Frantziako Flandes): Lille hiritik Dunkerkeko porturaino.

Lille da Paris eta Londresen arteko geldiune bakarra eta Rijssels du flandestar izena. Hiri industrial honek sekulako aurpegi garbiketa jasan du azken urteotan. Geroz eta turista gehiago inguratzen dira hona, eta askok Bruselako plaza nagusiarekin parekatzen dute bertakoa. Eta ez da harritzekoa, flandestar arkitekturaren adibide bikaina baita Lille.

Aldaketak aldaketa, alderdi asko ez dira hainbeste zaindu hemen. Nederlandera hizkuntza erabat gutxitua dago, bai Lillen, bai eskualde osoan ere. Ez da eskoletan irakasten, ez da beharrezkoa lanpostu bat aurkitzeko, ez dago seinale elebidunik... Antza, nederlandera asteen behin baino ez da entzuten Lillen. Hizkuntza zale

batzuk asteazkenero elkartzen dira hiri erdiguneko Taberne Flamande-n. Donostian gaskoizko azken hiztunek antzeko bilerak egiten zituzten XX. mende hasieran. Azken saiakerak ziren haiek, jada hilda zegoen hizkuntza berpizteko.

Lille-Flandres geltokitik abiatzen dira Dunkerkeranzko tren "motelak". Belgikako muga eskuinean dugula, Van Goghek hainbestetan margotutako paisaiak goza dezakegu, patxadan oraingoan. Adreiluzko kanpandorre zorrotzek euren bertikaltasuna aldarrikatzen dute, gari-soro lauen monotonia hautsi nahiko balute bezala. Agian, angelu zuzen eta lehor hauengatik bihurritu zuen pintoreak bere trazua.

40 minutu eskasetan Hazebrouck herrian gaude. "*Capital de la Flandre*", dio bertako kioskoan erositako postalak. Argazkian,

Frantziako Flandes

bere eliza puntaduna eta, goialdean, flandestar lehoia duen bertako armarrria. Itxura batez, Belgika iparraldeko edozein herritan egon gintezke: herriko plaza, etxeak, kaleak... Batek esango luke txukunegi, politegi dagoela dena Belgika izateko. Nolanahi, herriaren flandestar izena, Hazebroek, ez da inon ere ageri, ezta bertako jatorriko hizkuntzaren izpirik ere.

Nederlandera hitz egiten al da oraindik Hazebroeken? "Zahar batzuk baino ez", ohiko erantzuna. Eta ba al dago flandestar elkarterik hemen? "Ez", batzuk; "ez dakit", gehienek.

Marie Fleur Le Coq herriko museoaren zuzendaria da. Agustindarren komentua izan zen eraikin honek flandestar pinturaren, lanabesen zein janzkeren erakusketa du ikusgai. "Nederlandera gutxi batzuen etxe barruko hizkuntza da egun hemen", dio Le Coqek. "Hainbatek hizkuntza berreskuratu behar dela dio, baina nekez lor daiteke horrelakorik gobernuaren babesik gabe".

Hizkuntza ez ezik, flandestar nortasunaren ikurrak desagertzeko zorian egon litezke Hazebroeken: "Belgikako bi komunitate nagusien arteko istiluak direla eta, hainbat tabernarik flandestar lehoia kendu dute, bisitari frantsesak haserretuko direlakoan", gaineratu du 35 urteko zuzendariak.

Turistak eta lubakiak

Askoren ustetan, Kassel herria da Frans-Vlaanderen go politena. Lautadan ez, mendixka baten gainean dago toki lasai eta atsegin hau. Tren-geltokian gora igotzeko norbait zain ez baduzu, ordu erdiko txangoa behar da herri erdigunera iristeko. Baina paseoak merezi du.

Hazebroeken ez bezala, Kasselgo herriko plazan harro erakusten du taberna batek Flandeseko lehoia bere atean. Barruan, flandestar bandera erraldoi bat zintzilik.

"Lehoia eta bandera turistengatik jarri nituen, gehienak Belgika eta Herbehereetatik datoz eta!", dio Marcel tabernariak, Parisko frantses bikainaz. Nire etsipenaz jabetuta, gizonak orain arteko leloari eutsi dio: "Zaharrek oraindik nederlandera hitz egiten dute".

Belgiar eta herbehereetarrekin batera, makina bat bisitari datoz Erresuma Batutik ere. 2.000 biztanleko herri hau britainiarren kuarter nagusia izan zen Lehen Mundu Gerran, eta berebiziko garrantzi estrategikoa izan zuen bigarrenean ere. Britainia Handiko makina bat soldadu hil ziren Flandesko lubakietan, eta horietako asko hemen daude hilobiratuta. Egun, euren ondorengoen bisita jasotzen dute bertako kanposantuan.



Goiko irudietan, Kassel: plaza eta herriaren gaineko bista orokorra. Beheko argazkian, Dunkerkeko portuetako bat.

Haize errota batek adierazten du Kassel-go punturik garaiena. Alboan, 1677ko Kasselgo Gudaren harrizko oroigarria. Orduan eskuratu zuten frantziarrek eskualde hau, herbehereetarrak garaitu eta gero.

Abiadura motela baino, euren maiztasun urria da Lilletik Dunkerke-ra doazen trenen arazoa. Baliteke denbora gehiegi ematea nederlandera hiztunen bila Kasselen eta gure trenaren Ipar-itsasorantz alde egiten ikustea gero. Zer egin bi orduz lautada honen erdian? Bada, Flandesko zirimiria tartea uzten badu, Bavinchove herrixkaraino paseoa eman daiteke. Bertan, garagardo bat har dezakegu Goeden-dag (egun on) izeneko *vlaamse herbergen* (flandestar aterpea). Bere paretetan, lehoi beltzak, Britainia eta Korsikako banderak, Chieftains musika talde irlandarraren posterra eta egurrezko lauburu bat.

“Nire aiton-amonekin galdu zen hizkuntza nire familian”, dio Marc-ek, 30 urteko tabernariak. “Zergatik hitz egiten duzue *flamouchez*? Galdetzen zieten askotan. Azkenerako belaunaldi oso bat lotsaraztea lortu zuten”. Marcek dioenez, *flamouche* izena erabat gutxiesgarria izan arren, askotan entzun ohi da egun oraindik.

Tabernaren alboan, herriko eliza eta kanposantuak daude. Kuipers, Hazelreew, Mer-

tens... Horiexek dira Bavinchoveko hilotan aurkitutako hainbat izen. Dirudienez, abizen frantsesik aurkitzea nederlandera entzutea bezain zaila da lautadaren erdian galdutako herririka honetan.

20.000 hiztun

Espainiaren kontrolpean egon eta gero, Frans-Vlaanderen eskualdea 1677an eskuratu zuen Frantziak. Egun, Nord-Pas de Calais izeneko departamendu barruan dago. Frantziako ipar mendebaldean hitz egiten den nederlandera, hizkuntza honen mendebaldeko bariantetzat hartzen da. Egun 20.000 lagun inguruk hitz egiten dute, eta beste 40.000k oinarritzko ezagutza dutela diote. Hizkuntza ez da ofiziala eta erabat gutxitua dago.

Ebakuatuak eta emigranteak

Dunkerke hiria aliatuek Bigarren Mundu Gerran jasandako porrotetatik da ezaguna. 1940ko ekainean, ia 400.000 britainiar soldadu ebakuatu zituzten bertatik, alemanen erasoei aurre egin ezinik. Hiriaren jatorriko izen flandestarra Duinkerke da (*Duin*, duna eta *kerke*, eliza). Izan ere, bertako turismo bulegoak “*Dunes de Flandre*” (Flandesko dunak) goraipatzen ditu, bai eta bertako “flandestar eta frantziar sukaldaritzen arteko nahasketa bikaina”; alegia, patata frijituak eta muskuiluak.

Baina turismoa ez da inoiz izan industri-portu honen alderdirik arrakastatsuen. Egia esan, kontrako fenomeno eman da beti hemen: etorri baino, jendeak alde egin ohi du.

Nord departamenduak Frantziako emigratio tasarik handiena du. Irlandako gaelikoaren gainbehera Amerikako Estatu Batuetarako emigratio masiboak eragin bazuen, antzeko prozesuaz hitz egin daiteke hemen. Baina New Yorken edota Bostonen ez, Paris kanpoaldeko auzoetan galdu da Frantziako nederlandera, bere hiztunekin batera.

Manchako kanalaren ur grisak bustitzen dute Dunkerkeko hondartza erraldoi eta haizetsua. Bertan, Ingalaterratik datozen ferryen argiak bereiz daitezke. Itsas azpian, Londresera doa tren, 200 kilometro orduko abiaduran. Frans-Vlaanderen, ordea, bidean gelditu da; “mugarik ez duen” Europa honek baztertuta. ■

